

# Hamaika errepublikek Alma Atan ehortzi dute Soviet Batasuna

Arma nuklearren kontrol bateratua egongo da eta soilik Errusiak izango ditu

**E**statu Independenteen Komunitatea (EIK) osatuta geratu zen atzo larunbatean, Soviet Batasuna zeneko hamabost errepubliketatik hamaiketik integratua. Errepublika horietako lehendakariak SESBen desegitea sinatu zuten, Mikhail Gorbaxov lehendakari soviatarren jubilazioa emanez. Mendebaldeari lasaitasuna emateko, arma nuklearren kontrol bateratua erabaki zuten hamaika errepubliketatik lehendakariak.

ALMA ATA

Errusia, Bielorrusia, Ukraina, Kazakhstan, Kirgizia, Turkmenistan, Tadjikistan, Azerbaidjan, Uzbekistan, Armenia eta Moldavia osatuko dute EIK, izen hau alda badaiteke ere eta errepublika ertasiarrek nahi duten Estatu Independenteen Komunitate Eurasiarra hartuko luke izentzat. Georgiak Soviet Batasuna ordezkatuko duen komunitate berrian sartu ala ez beranduago erabakiko du. Alma Atan begirale soilak izan dira georgiarrak.

Lehendakariak sinaturiko dokumentu guztiak Alma Atako deklarazioan bilduko dira. Testu horretan, autodeterminazio eskubidea eta estatu subiranoetako mugak ezin dira bortxatu azpimarratu da.

EIK osatzeko lanak amaitu gabe daude oraindik, eta gaur segituko du Alma Atako gailurrak.

Atzoko erabakien artean, arma nuklearren kontrola, Armadaren osaketa eta Nazio Batuetan izan beharreko ordezkaritza dira nabarmenak. Arma nuklear guztiak kontrol



Hamaika errepubliketako lehendakariak atzo Alma Atako gailurrean bilduta.

aginte bakar baten esku egongo direla ziurtatu zuen Nursultan Nazarbajev lehendakari kazakhstanarrak.

Armadaren osaketari buruz, arazoak zeuden hasieratik Armada bakarra osatu ala ez, eta horregatik abenduaren 30ean egingo den gailurrerako utzi zuten azken erabakia.

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko aulki soviatarra nork beteko duen eztabaidan, duda-muda gaindituta, aho batez erabaki zuten Errusia izango dela aulkiaren jabe. Errusiak hartuko ditu, era berean, orain arte soviatarrek ziren enbaxadak. Lehendakariak Gorbaxovi eskerrak eman zizkioten «demokratizazioarako egin duen lanagatik». Agiri bat ere bidali diote SESB eta berak betetzen duen aulkia desagertu egin direla adierazteko.

## EIKren oinarriak ezartzen

ALMA ATA

Alma Atan, Soviet Batasuna desegitea erabakitzeaz gain, ordezko Komunitatearen oinarriak ere jarri zituzten atzo.

□ ARMA NUKLEARRAK botere zentral batek kontrolatuko ditu. Horien erabilera Errusiak erabakiko du, Ukraina, Bielorrusia eta Kazakhstaneko lehendakariekin kontsultatu ondoren. Hiru errepublika horiek datorren urteko uztaile baino lehen beren arma nuklearrak Errusiara bidaliko dituzte han suntsi ditzaten.

□ ARMADA behin-behinean oraingoak segituko du. Abenduak 30 erabakiko dute Armada bakarra ala

errepublika bakoitzak berea izango duen. Bitartean, Eugeni Xapoxnikov izango da Armadako buru.

□ HIRITARTASUNA ez dago zehaztuta oraindik, EIK-k ez duelako hiritartasun amankomunik egon behar denik adierazi. Dena den, Kravtjuk lehendakari ukrainiarrak esan zuenez, Komunitateko edozein biztanlek hiritartasun bikoitza har dezake. □ DIPLOMAZIA arloan, Errusiak beteko du Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko aulki soviatarra. Enbaxadak ere errusiarrak izango dira, baina SESBeko enbaxada guztien balioa kalkulatu egingo da, beste errepublikek enbaxadak irekitzeko asmoa dutenean dagokiena emateko.

## SESB: platinozko eztaietara heldu ez den batasuna

1917

Boltxebikeek Errusiako Gobernuaz jabetu ziren, mentxebikeen tsarra boteretik kendu zutenak -kontra Urriko Altxamenduan.

1918

Leninek mentxebikeen antolatutako transiziozko erakundeak desegin eta Alderdi Komunista baino ez du onartu. Lehen errepublika soviatarra osatu du, Errusia. I Mundu Gerran bakea sinatu du alemanekin eta Nikolai II tsarra eta bere familia hiltzeko agindua eman du.

1922

Leninek Stalin Alderdi Komunistaren idazkari nagusi izendatu du eta Ukraina eta Bielorrusiarekin Batasun Ituna sinatu du.

1924

Lenin hil da. Boterea Stalin, Zinoviev eta Kamenevek osatutako troiak hartu du.

1927

Trotsky Alderdi Komunistatik bota dute.

1936-1938

Stalinek Moskuko Prozesua antolatu du. Boterean bera bakarrik geratu da. Milioika komunista espetxeratu eta hilko dira hurrengo urteetan. Sta-

lin, jaun eta jabe.

1939

Stalin eta Hitlerrek ituna sinatu eta zenbait lurralde -Polonia, Baltikoko errepublikak, Besarabia- elkarren artean banatu dituzte.

1941 Alemaniarrak SESBi eraso egin eta ia Moskuraino iritsi dira.

1945

SESBek II Mundu Gerra irabazi eta mundua estatubatuarrekin banatu du. Gerra Hotza hasi da.

1953

Stalin hil da. Khruxtxev boterea hartu du.

1956

Alderdi Komunistaren XX. Kogresuak stalinismoaren gehiegikeriak salatu ditu. Armada Gorriak izugarritzko sarraskia egin du Hungarian.

1964

Khruxtxev azpikoko baten bidez boteretik kanpora. Brejnevek ordezkatu du.

1968

Armada Gorriak Txekoslovakiako altxamendua zapaldu du.

1979

Armada Gorriak Afghanistan inbaditu du. Ber-

tako gerrila musulmanek erresistentzia antolatu dute.

1982-1985

Brejnev, Andropov eta Txernenko bata bestearen atzetik hil dira.

1985

Gorbaxovek boterea hartu eta perestroika indarrean jarri du.

1988

Kaukasoa gatazka etnikoak hasi dira.

1989

Berlineko harresiarekin batera Europako ekialdeko erregimenak erortzen hasi dira.

1990

Hauteskunde bidez errepubliketan nazionalistek boterea hartu dute. Lituaniak independentzia aldarrikatu du. Gainerako errepubliketan subiranotasun aldarrikapen ugari.

1991

Gorbaxovek batasun berria osatu nahi du. Ekainean, Ieltsin Errusiako lehendakari hautatu dute. Abuztuan, Estatu kolpeak porrot egin du, eta abenduan Ieltsinek proposatutako Estatu Independenteen Komunitateak SESB ordezkatu du.

LABURREAN

**MOÇANBIQUEKO** bake negoziaketak bide onetik doaz

Moçambique-ko Gobernu eta gerrila herrialde afrikar horretan bakea lortzeko egiten ari diren negoziatetako zortzigarren bileraren ondoren, oso baikor agertu ziren gatazkan dauden bi aldeak. Zortzigarren bilera horretan, bake akordioa lortu eta urtebetera egingo diren hauteskundeen prozeduraren nondik norakoa erabaki zen. Datorren urtarilaren 15ean segituko dute negoziaketek.

**TXINAN** zergak murriztu dituzte protestak ekiditeko

Txinako biztanlearen % 80 osatzen duten nekazarien protestek, zergak murriztera behartu dituzte herrialde horretako agintariak. Zergen jaitsiera, aurreko urtekoarekin alderatuz % 2,88koa izan da. Alderantziz, iaz ordaindu beharreko zergak, aurreko urtekoaren bikoitza izan ziren. Zergen igoera neurrik gabeak nekazarien artean sortutako haserreak, protesta ugari eragin ditu, eta zenbait zerga biltzailearen heriotza ere bai nekazarien eskutan.

**HEGOAFRIKAKO** ultraeskuindarrek CODESA mehatxatu dute

Hegoafrika Demokratikoaren aldeko Konbentzioa (CODESA) egiten ari deneko egoitzaren aurka atentatu egingo dituztela, adierazi dute Otsu Zuri Mugimendua talde zuri ultraeskuindarreko kideek. Mehatxua iragan ostiralean de Klerkek adierazitakoen ondorio izan dakiteke, gehiengo diren beltzekin boterea elkarbanatzeko gertu zegoela esan bait zuen Hegoafrikako agintariak.

**HAITIARRREN** aberriratzea eragotzi du epaile batek

EEBBeko epaile federal batek herrialde horretako Gobernuari, haitiarren aberriratzeari berriro ekitea eragotzi dio. Epaile horren aburuz, haitiarrek nahiz eta errefuxiatu politikoen estatusik ez izan, abokatu baten laguntza izateko eskubide osoa dute. Egund 6.600 haitiar daude Guantanamo base militarren inguruetan eraikitako errefuxiatuentzako behin-behineko kanpamenduan.